



2024KO URTEKO MEMORIA

UNRWA Euskadi

Palestinako errefuxiatuen aldeko Nazio Batuen Agentzia



unrwa
euskadi

erkidego batzordea



unrwa
euskadi

AURKIBIDEA

Nor gara.....	07
Non egiten dugu lan.....	08
Palestinako Lurralde Okupatua.....	10
Gazako Zerrenda.....	12
Zisjordania.....	14
Siria.....	16
Jordania.....	18
Libano.....	20
UNRWA EUSKADI	
Gure lana.....	22
Ekintza Humanitarioa eta Garapena.....	24
Herritartasun Globalerako Hezkuntza.....	27
Beste albiste eta ekintza garrantzitsuak.....	33

An aerial photograph of a city in a state of total devastation. The ground is covered in a thick layer of rubble, including twisted metal, broken concrete, and charred remains. In the background, several multi-story buildings remain standing but appear heavily damaged, with some windows missing and structures exposed. A plume of white smoke or dust rises from the left side of the frame. The overall atmosphere is one of desolation and the aftermath of a conflict.

**6 MILIO PALESTINAR
ERREFUXIATU BIZI DIRA
GAZAKO ZERRENDAN,
ZISJORDANIAN (EKIALDEKO
JERUSALEM BARNE),
JORDANIAN, LIBANON ETA
SIRIAN, HAIEN EGOERAREN
KONPONBIDE JUSTU ETA BEHIN
BETIKO BATEN ZAIN.**

**PALESTINAKO ERREFUXIATUAK
MUNDUKO ERREFUXIATURIK
ZAHARRENAK DIRA.**

NOR GARA



UNRWA, NBE PALESTINAKO ERREFUGIATUEN AGENTZIA

1950eko maiatzaren 1ean UNRWA agentziak bere lana hasi zuen, 700.000 errefuxiatu baino gehiagori larrialdiko laguntza emateko eta gizarte-laguntzako programak hasteko helburuarekin.

75 urte eta gero, UNRWA erakundearen xedea Jordanian, Libanon, Sirian eta Palestinako lurralde okupatuan (hau da, Gazako zerrenda eta Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem barne) Palestinako 6 milioi errefuxiatu baino gehiagori laguntza, babesa eta defentsa ematea da, haien egoera zailari irtenbide baketsu eta iraunkor baten zain dauden bitartean.

UNRWA ia osorik NBEko estatu kideen, erakunde publiko eta pribatuen eta herritarren borondatezko ekarpenek finantzatzen dute.

NOLA EGITEN DU LAN AGENTZIAK

UNRWAK Palestinako errefuxiatuen ongizate eta giza garapenaren alde lan egin du. Hasiara batean, hiru urte iraungo zituen aldi baterako erakundea zen. Geroago, ordea, Agentzia pixkanaka bere programak egokituz joan zen, sei hamarkadatan baino gehiagoan errefuxiatuen beharren aldaketak asetzeko.

UNRWAK garapenerako eta laguntza humanitariorako programak eskaintzen dizkie Palestinako 6 milioi errefuxiatu baino gehiagori 58 kanpamentutan, hezkuntzako, osasuneko, gizarte-zerbitzuetako, mikrofinantzaketako, giza eskubideen babeseko eta erantzun humanitarioko eta larrialdiko zerbitzuen bitartez.

Sortu zenetik, Agentziak etenik gabe egin du lan, bai Ekialde Hurbilean egondako barealdietan, bai liskar armatuen garaietan.

Izan ere Agentziak, giza garapenerako nazioarteko konpromisoaren eredu, zuzenean eskaintzen dizkie zerbitzuak Palestinako errefuxiatuei

UNRWA erakundeak ehunka eskola kudeatzen ditu zuzenean Ekialde Hurbil osoan. Gainera, Agentziak osasun-arreta ematen du lehen mailako osasun-zentroen eta urruneko komunitateetara iristen diren arreta-puntu mugikorren bidez. Gizarte-arretarako zentroak, garapen komunitarioko zentroak eta emakumeentzako zentroak ere baditu.

UNRWA EUSKADIREN KONPROMISOA

2006an sortu zen UNRWA Euskadi, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, euskal gizarteari Palestinako errefuxiatuek bizi duten egoeraren berri ematea eta, bestetik, UNRWA agentziak haiekin duela 75 urtetik egiten duen lan humanitarioa zabaltzea. Horrez gain, UNRWAK biztanleria honi eskaintzen dizkion zerbitzuak mantentzen laguntzeko, erakundeak funts publiko zein pribatuak biltzen ditu.

NON EGITEN DUGU LAN



comité autonómico



unrwa
euskadi

LIBANO



493.201 pertsona erregistratuak
12 kanpamendutan

SIRIA



586.842 pertsona erregistratuak
9 kanpamendutan

ZISJORDANIA



912.879 pertsona erregistratuak
19 kanpamendutan

GAZA



1.586.965 pertsona
erregistratuak
8 kanpamendutan

JORDANIA



2.393.135 pertsona erregistratuak
10 kanpamendutan

PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUA

Palestinako lurralde okupatua azken hamarkadetako unerik zailena bizitzen ari du. Gazako biztanleriak aurrekaririk gabeko krisialdi humanitarioari aurre egin behar dio; aldi berean, Zisjordanian, Ekialdeko Jerusalem barne, bigarren intifadatik (2000-2005) ikusi ez den indarkeri mailetara iritsi da.

Gazako zerrendako 2,1 milioi biztanleak krisialdi humanitario larrian bizi dira, gosetetik oso gertu. Ia funtsezko azpiegitura guztiak, hala nola osasuna, energia, ura, hondakinen kudeaketa eta babeslekuak, suntsituta edo erabili ezin gabe daude.

Egoera larri hau, agente humanitarioek lurraldean sartzeko dituzten etengabeko murrizketen ondorioa da ere, laguntza eta oinarrizko zerbitzuak ematea eragozten baitute.. Urtebete baino gehiago igaro da erasoaldia hasi zenetik eta giza bizitzen kopurua etsigarria izan da. 2024ko abendura arte, 45.000 palestinar baino gehiago hil dituzte, horien artean emakumeak eta haurrak, eta gutxienez 107.000 zauritu dituzte. Horrez gain, milaka palestinarrek hondakinen azpian desagertuta jarraitzen dute.

Zisjordanian, Ekialdeko Jerusalem barne, indarkeria, eraispenak eta zirkulazio murrizketak bigarren intifadatik ez diren ikusi mailetara iritsi dira.

Israelgo armadak Zisjordanian egindako erasoaldiak izugarri areagotu dira eta gero eta militarizatuago daude. Izan ere, aire-erasoak ere erabiltzen ditu eta etxebizitzak eta azpiegitura zibilak suntsitu egiten ditu. Halaber, kolonoen erasoak eta talde armatuen eta Israelgo armadaren arteko liskarrak areagotu egin dira.





PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUA



ZISJORDANIA

ZISJORDANIA

Zisjordanian dauden Palestinako errefuxiatuen laurdena UNRWA agentziak eskualde horretan kudeatzen dituen 19 kanpamentuetan bizi da. Gainontzekoak hirietan eta herrietan bizi dira. Gazan pairatutako izugarrikeriak bizi ez diren arren, Zisjordanian ere une latzak nagusitu dira. Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Bulegoaren arabera, 2023ko urriaren 7 eta 2025eko urtarrilaren 26 bitartean 845 palestinar hil zituzten Zisjordania okupatuan, Ekialdeko Jerusalem barne. Horietatik 498 2024an.

Zisjordanian, indarkeria areagotzen ari da, bereziki armadaren aire-eraso gero eta ugarien eta kolono israeldarren erasoen bidez. Osasun, hezkuntza, ura, saneamendu eta higiene instalazioen aurkako erasoek behin eta berriz suntsitzen dute funtsezko azpiegitura zibila. Palestinarrak eta agente humanitarioek hiri edo eremu batetik bestera bidaiatzeko eragozpenak jarraitzen dituzte mugitzeko murrizketak direla eta. Israelek esportazioei eta inportazioei ezartzen dizkien etengabeko murrizketek, Palestinako Agintaritzaren diru-sarrerak etetearekin batera, soldatak ordaintzea eta funtsezko zerbitzuak ematea oztopatu egiten dute. Langabezia % 60koa da, sektore pribatuaren likidezia murrizten ari da eta merkataritza informalak behera egin du.

Israelek lan-baimenak lortzeko eta nekazaritza sektorean sartzeko ezarri dituen murrizketen ondorioz, bizirik irauteko aukerak ere gehiago larrituko ditu.

Israelgo indarrak neurri handiko operazioak egiten hasi ziren Zisjordania okupatuan 2023. urtearen erdialdean. Orduetik, milaka familia lekuz aldatu behar izan dira. Etengabeko operazio suntsitzailen ondorioz, iparraldeko errefuxiatuen kanpamentuak ez daude bizitzeko moduan. Beraz, bertakoak behin eta berriz lekualdatu behar dira. 2024an, lekualdaketen % 60 baino gehiago Israelgo indarrek inolako agindu judizialik gabe egindako operazioen ondorio izan ziren. Indar israeldarrek aire-erasoak, hondeamakina blindatuak, leherketa kontrolatuak eta armamentu aurreratutako erabiltzea ohikoa bihurtu da.

Egoera bereziki larria izaten ari da Jeningo kanpamentuan, 20.000 biztanle inguru zituena. 2024. urtearen amaieratik bertako biztanleak oso egoera estuan daude. Izan ere, kanpamentuko milaka egoiliar behartuta lekuz aldatu dira, eta askok ez dute itzultzeko lekurik izango. Bizitzaren oinarriko osagaiak desagertu egin dira.



GAZAKO ZERRENDA

GAZAKO ZERRENDA

Gazako zerrendak bere historiako urterik txarrena bizi izan du. Israelek erasoaldia hasi zuenetik 2025eko urtarrilera arte gutxienez 45.000 pertsona hil dituzte, % 70 emakumeak eta haurrak, eta 110.000 zauritu dituzte. Milaka hondakinen azpian jarraitzen dute.

Hori da elikagaien eta osasun-arretaren faltak, ur kutsatua kontsumitzeak eragindako gaixotasunek eta abarrek eragindako heriotzak kontuan hartu gabe.

Gazako herritarren % 90ak (1,9 milioi pertsona) bere etxea utzi behar izan du, eta etxe eta instalazio gehienak suntsitu egin dira. Zerrenda osoko azpiegituren % 70 inguru kaltetuta edo suntsituta daude. Horien artean UNRWA agentziaren 200 instalazio daude (osasun-zentroak, eskolak, zentro logistikoak, etab.).

Urtebete baino gehiago igaro da Israelen erasoaldia hasi zenetik, batez ere Gazan, baina baita Zisjordanian ere, eta heriotzak eta hondamendia izugarriak izan dira.

Larrialdiko elikagai-laguntzaren mendekotasuna ia erabatekoa da, nekazaritza-sistemak suntsitu egin direlako eta inportazioak mugatuta daudelako. FAO erakundearen arabera, zerrendako berotegien % 56,5ak kaltea jaso du 2023ko urria eta 2024ko abendua bitartean. Gainera, lehen laborantzarako eta olibadietarako erabiltzen ziren soroen % 75 kaltetu edo suntsitu izan da eta abere galerak % 96koak dira.

Gaza planetako lekurik arriskutsuenetakoa da laguntza eramateko. Argi markatutako laguntza humanitarioko konboiek askotan erasoak jaso dituzte, nahiz eta Israelgo indarrek formalki onartu mugitzeko aukera.

NBERen erregistroen arabera, 2024a langile humanitarioentzako urterik hilgarriena bilakatu da. Gazan gutxienez 320 langile humanitario hil zituzten gatazkaren lehen urtean, gehienak UNRWA agentziako langileak.

Erasoaldian zehar, UNRWA erakundeak 1,9 milioi gazatarrentzako janari-anoak banatu ditu eta egunean 16.000 kontsulta mediko egin ditu batez beste; guztira 1,6 milioi kontsulta 2024ko abendura arte. Gainera, 520.000 haurrek laguntza psikologikoa jaso dute saio eta jardueren bidez. UNRWA funtsezko eginkizuna izaten ari da susperraldian. Eskaintzen dugun laguntza kaltetutako pertsonengana iristen ari da oraindik ere, eta Agentziaren azpiegitura eta langileak ezinbestekoak dira Nazio Batuen munduko erantzun humanitariorako.



SIRIA

SIRIA

Siriako krisialdia XXI. mendeko gatazkarik hilgarriena da, eta munduko lekualdaketako larrialdirik handienetakoa. Gatazkak ustekabeko norabidea hartu zuen 2024ko abenduaren 8an, Bashar al-Assaden gobernuak bukatu zenean, milaka preso politiko askatu zituztenean eta behin-behineko administrazio berri batek kontrola hartu zuenean. Borroka armatuak 6 milioi errefuxiatu utzi ditu, eta barne lekualdatu asko. Erregimenaren eroraldiaren ondoren, inguruko herrialdeetan errefuxiatuta zeuden milaka pertsonak etxera itzultzeko bidaiari ekin diote.

Krisialdiaren aurretik, UNRWak 560.000 palestinar errefuxiatu zituen erregistratuta Sirian.. Gaur, 438.000 gelditzen dira; horietatik % 40 barne desplazatuak dira, eta bosten batek alde egin du. Horren barruan sartzen dira ondoko herrialdeetara joandako Palestinako 44.202 errefuxiatu. Horietatik 20.324 Jordaniara eta 23.878 Libanora joan dira.

Trantsizioko administrazioak gobernantza sendotu eta osasun, hezkuntza eta ur horniketa oinarriko sistemak berreraiki beharko ditu, eskualdearen egonkortasunerako erronka garrantzitsuei, Siriako lurraldeko ekintza militarri eta oinordetzan jasotako krisialdi ekonomiko itogarriari aurre eginez.

Tokiko eta eskualdeko azken indarkeria-agerraldien aurretik ere, Sirian bizi ziren Palestinako errefuxiatuen ia % 90a, 2,15 dolar baino gutxiagorekin bizi zen egunean. Elikagaien segurtasuna Palestinako errefuxiatuen artean izugarri okertu da azken hiru urteetan: elikagaien segurtasun eza tasak etengabe igo dira 2022ko irailean % 46 izatetik 2023ko irailean % 56 izatera arte eta, gero, 2024ko martxoan % 62 izatera arte. Ume gehienak elikadura-pobrezian daudela, herrialdea desnutrizioa krisialdi batean sartzen ari da.





JORDANIA

JORDANIA

Gazako gatazkarekin lotutako liskarren gorakadak, Jordaniaren egoera sozioekonomikoa kaltetu du eta segurtasun-arriskuak areagotu ditu.

Egoeraren aldaketa gehien nabaritu duen biztanleria zaurgarriena izan da. Libanon, Sirian eta Iraken bizi diren Palestinako errefuxiatuak horren barruan daude. Jordanian dagoeneko munduko biztanle bakoitzeko errefuxiatuen bigarren populaziorik handiena bizi da.

Bizitzaren kostua igotzeak are zailago bihurtzen du herrialdeak krisialdiak eragindako pertsonen etorrera kudeatzeko duen gaitasuna, eta Palestinako eta arriskuan dauden beste talde batzuetako errefuxiatu gehiago zaurgarritasun sakonagora bultzatzen ditu.

Bata bestearen gainean dauden krisialdi luze hauei erantzunez, UNRWA erakundearen erantzuna egokitzen jarraitzen dugu kaltetuen behar aldakorak asetzeko, laguntza humanitaria zaurgarrienengana iritsiko dela ziurtatuz.





LIBANO

LIBANO

Gerrak Libano ere astindu du azken urte honetan. 2024ko iraila eta azaroa bitartean, Hezbolá eta Israelen arteko gatazkaren larriagotzerik handiena bizi izan zuen Libanok, 2006an egondako gerratik. 2023ko urrian Gazako gatazka hasi zenetik Lerro Urdinean zehar izandako liskarren areagotzeari jarraitu zion indarkeriaren gorakada horrek.

900.000 pertsona inguru lekualdatu behar izan dira barnean gatazkaren ondorioz, Palestinako 30.000 errefuxiatu barne, 2006ko lekualdaketa mailak gaindituz.

Funtsezko azpiegiturak suntsitu edo kaltetu dira, bizitegi-eraikinak, ur-instalazioak eta osasun-zentroak ere bai. Hezkuntza etenda egon zen ikasturtea hasi zenetik azaroaren amaierara arte. Herrialdeko eskola guztiak itxita eta klaseak etenda egon ziren Libanoko 340.000 bat ikaslerentzat, UNRWA agentziako 38.000 ikasle inguru barne. Agentziaren eskola asko larrialdietarako babesleku izendatu gisa erabili dira.

Hildakoez, zaurituez, joan-etorri masiboez eta suntsipenaz gain, gatazkak milaka bizitza jarri zituen arriskuan eta talde zaurgarriek, hau da, adinekoek, emakumeek, desgaitasunak dituztenek eta hurrek, arrisku handiagoei egin zieten aurre.

Egungo krisialdi humanitarioari erantzunez, UNRWA erakundearen larrialdietarako 12 babesleku izendatu ireki genituen gure eskoletan, funtsezko gaiak eskainiz, hala nola elikagaiak, ura, koltxoak, tapakiak eta elikagaiak ez ziren beste gai batzuk. Halaber, laguntza psikologikoko zerbitzuak eta jolaserako jarduerak eskaini genizkien barruan lekuz aldatutako pertsonari, bereziki hurrei.

UNRWA agentziaren larrialdietarako babesleku izendatuek behar zuten lekualdatutako pertsona guztiei lagundu zieten, gizarte-kohesioa sustatuz eta oinarri humanitarioak defendatuz. Azaroaren 27ko su-etenak aukera eman zuen behar humanitario premiazkoenei heltzeko eta pertsona zaurgarri eta desplazatuentzako laguntza humanitarioa zabaltzea errazteko.



GUERE LANA



UNRWA EUSKADIREN LAN-EREMUAK

UNRWA Euskadiren lana honako jarduera-arlo hauetan garatzen da:

1. Laguntza humanitarioa eta garapena

Agentziak Palestinako errefuxiatuei ematen dizkien zerbitzuen kalitatea bultzatu eta iraunarazteko, UNRWA Euskadik finantzaketa publikoa (lankidetzaz deszentralizatua) zein pribatua (enpresak, bazkideak eta banakako dohainak) jasotzen du.

Osasun-laguntza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, azpiegiturak, mikrofinantzak, elikagai-laguntza, larrialdiak eta giza eskubideen babesa dira jarduten diren lan-eremuak.

2. Herritartasun globalerako hezkuntza

UNRWA Euskadiren iritziz, herritartasun globalerako hezkuntza prozesu bat da, munduko egoeraren inguruan kontzientzia kritikoak pizteko eta herritarrei parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko eta bidegabekeriaren aurka modu solidarioan borrokatzeko tresnak emateko, eta garapen global eta jasangarri baten alde lan egiteko, tokian tokikotik abiatuta globaltasunera iritsiz.

Agentziak, Herritartasun Globalerako Hezkuntza zeharkako tresna dela ulertzen du, sentsibilizazioaren bidez eremu formaletan (eskolak eta unibertsitateak, adibidez), ez formaletan nahiz informaletan eta bizitzako etapa guztietan txertatzen dena.

Hala, UNRWA Euskadi lanean ari da euskal herritarrek Palestinako 6 milioi errefuxiatu baino gehiagok bizi duten egoeraren inguruan sentikor bihurtzeko eta UNRWA agentziaren lan humanitarioa zabaltzeko. Honako hauek dira lan-ildoak:

Sentsibilizazioa: hitzaldi, jardunaldi, zinemaziklo eta erakusketa ibiltarien bidez, baita unibertsitate eta irakaskuntzaren sektorerantzuzendutako prestakuntzako ikastaro eta tailerren bidez ere, besteak beste. Prestakuntzako jardunaldi edo zikloek giza eskubideei lotutako hainbat gai lantzen dituzte.

Bakearen kultura, herritartasun globalerako hezkuntza eta genero-berdintasuna.

Hezkuntza eremu formaletan, informaletan eta formalak ez direnetan: euskal hezkuntza komunitate kontzienteagoa, solidarioagoa eta parte-hartzaileagoa sortzen laguntzen dugu, 2030 Agenda eta giza eskubideak betetzeko eta metodologia artistiko eta berritzaileak erabiliz.

EKINTZA HUMANITARIOA ETA GARAPENA

Gainpopulatutako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren eta elikadura eta lan segurtasunik eza pairatzen duten Palestinako milioika errefuxiatu neurrigabe daude arriskuan. Horregatik, UNRWA erakundeak gauzatzen dituen ekintza humanitarioko programak bereziki beharrezkoak izan dira Palestinako errefuxiatuek bizi duten egoera konplexu eta larriari aurre egiteko. 2024an zehar, UNRWA agentziak Palestinako 5,9 milioi errefuxiaturi larrialdiko laguntza, elikatzeko laguntza, hezkuntza eta lehen mailako osasun-arreta ematen jarraitu du, dohaintza-emaile publiko eta pribatuen babes eskuzabalari esker.

Siria: babes osasunaren, emakumeen eskubideen eta eskudiruzko laguntzaren bidez

Gatazka hasi zenetik UNRWA Euskadik programa humanitarioak mantendu ditu, bizitzak salbatzeko eta kaltetutako pertsonen duintasuna zaintzeko helburuarekin.

eLankidetza - **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak** Sirian dauden 25.775 Palestinako emakume errefuxiatuaren ahalduntzea lortzen eta zaugarritasuna murrizten lagundu du. Emakumeen sexu- eta ugalketa-osasunerako zentroei laguntzeko jarduerak, genero-indarkeriaren arretako eta prebentzioko jarduerak, emakumeentzako lanbide-heziketaren eskaintza, eta genero-sentsibilizazioko eta inklusioko jarduerak egiteari esker, aurrerapausoak eman dira genero-rolen aurkako borrokan eta, ondorioz, emakumeek autonomia eta parte-hartzea lortu dute familia-, komunitate- eta gizarte-eremuetan.

Beste alde batetik, **Bizkaiko Foru Aldundiak** 21.381 pertsona ingururen osasunerako eskubidea babesten du eta, bereziki, 1.600 emakume, 380 emakume haurdun eta 12 hilabete baino gutxiagoko 376 haur ingururen sexu- eta ugalketa-osasuna.

Era berean, **Kutxa Fundazioak** 2.249 emakume eta haurren osasunerako eskubidea babesten du. Osasunaren arloko laguntzaren bidez, emakumeek familia-plangintzan eta erditu aurretik eta ondoren behar duten informazioa eta arreta jasotzea bilatzen da. Horrez gain, adinagatik egoera zaugarrian dauden haurrei arreta ematea nahi da, azterketa medikoak eginez eta txertoak egutegi ofizialaren arabera jasotzen dituztela bermatuz. Honekin, amen eta seme-alaben osasunerako eskubidea bermatzen da.



Gazako zerrenda: elikaduraren segurtasun eza murriztea eta osasun zerbitzuak, hezkuntza eta higieneko kitak ematea

Testuingurua kontuan hartua, hau da, Gazan dagoen blokeoa kontuan hartua, osasunerako eskubidea erabiliz, lehen mailako arreta hauek eman dira: eLankidetzak - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak - gutxi gorabeherea 2.501.265 arreta, Bilboko Udalak gutxi gorabeherea 1.820.000 arreta eta Bizkaiko Foru Aldundiak gutxi gorabeherea 1.500.000 arreta. Arnasketako infekzioetan, infekzio gastrointestinaletan, kutsatu ezin diren gaixotasun kronikoak dituzten pertsonetan, zaurituetan, haurrei txertoak jartzean eta haurdun dauden emakumeen arretan arreta berezia jarri da.

Larrialdietarako Arabako Funtsak (Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak) 58.820 pertsonari arreta eskaintzen lagundu du 6 hilabetez (15.485 gizon, 26.221 emakume eta 17.114 haur), hau da, % 26,33a gizonak, % 44,58a emakumeak eta % 29,09haurrak. **Hezkuntzako arretari eta arreta psikosozialari** dagokienez, emandako funtsekin **eLankidetzak - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak** arreta psikohezigarria, psikoolgetakoa eta banakako eta taldeko arreta eskaini die 86.633 haur ingururi. **Era berean, Bilboko Udalak** arreta bera eskaintzen die 13.050 haur ingururi eta **Gipuzkoako Foru Aldundiak** 9.600 haur ingururi. Izan ere, ohiko klaseak jaso ezin dituzten arren, beldurrak eta galerak (etxea galtzea, senideak galtzea eta abar) partekatze eta tarte batez umeak izateko aukera ematen dieten jolasak egiteko ahalik eta gunerik seguruena sortu nahi izan da. Gainera, Bilboko Udalak gunere seguruak mantentzen lagundu du, haurrei erosoago eta seguruago sentitzen laguntzen dieten mantentze-jarduera txikiekin. Gazako zerrendan dauden Palestinako errefuxiatuen elikaduraren segurtasunik eza murrizten lagundu dutela partekatze guneak eta jarduerak behar dituzte.

Gainera, elikaduraren segurtasunik ezari dagokionez, **Beasaingo Udalak** 356 pertsona ingururi elikagaiez betetako saskiak banatu dizkie, eta **Lasarte-Oria, Andoain, Audio, Berriatua, Basauri, Zeanuri, Zarautz, Artziniega, Bilbo, Ermua, Ikaztegieta, Leioa, Galdakao, Zaldibar, Eskoriatza, Sopela, Alkiza eta Arrigorriagako udalek eta Euskal Herriko Funtsak** gutxi gorabehera 2.450 pertsonaren elikaduraren eta nutrizioaren segurtasunik eza murriztea ahalbidetu dute. Hala, pertsona horiek elikatzeko duten eskubidea bermatu eta onuradunen nutrizio-beharren % 90era iristea erraztu da.

Urari eta saneamenduari dagokienez, **AMVISA** erakundeak (Gasteizko uren udaleko enpresak) 2.240 higieneko kit banatzen lagundu du (1.165, emakumeei), oinarrizko higieneko gaiak eskuratzeko aukera bermatzeko eta zerrendan edateko urik ez egoteagatik kutsa daitezkeen gaixotasunak saihesteko. prebenitzeko helburuarekin.

Zisjordania: emakume errefuxiatuen duintasuna indartzea



eLankidetzak - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak Zisjordaniako emakumeen duintasuna eta hilekoaren osasuna babesten ditu, gutxi gorabehera 3.000 emakumeri duintasuneko kitak banatuz eta Palestinako errefuxiatuen 10 kanpamentutan hilekoaren osasunari eta emakumeen segurtasunari buruzko kontzientziarazioko saiok eginez.

Libano: emakumeen sexu- eta ugalketa-osasuna eta osasuna larrialdietan

eLankidetza - **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak** sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak familia-plangintzako zerbitzuetan parte hartu duten 3.640 pertsonari eta hilero erregistratutako 919 emakume haurduni ematen lagundu du. Azken horiek jaio aurreko arreta jaso dute, aurreikusitako azterketa eta probekin, eta jaio osteko arreta jaso dute aurreikusitako azterketekin. Gainera, aholkularitza eta arreta eman zaizkie hilean erregistratutako eta gehienez urte bateko 919 haurri, azterketekin eta txertoekin.

Larrialdietarako Arabako Funtsak osasunaren arretan lagundu du. Izan ere, Israelek Libanon egindako erasoen eta aurrerapenaren ondorioz, hegoaldeko biztanleak iparralderantz mugitu ziren (une honetan, aldi baterako su-etena dago), eta osasunaren arloko langileak (medikuak, erizainak, emaginak...) behar izan ziren biztanleriaren lekualdaketaren ondorioz antolatutako kanpamentuetan lan egiteko. 4.570 onuradun ingururi eman zaie arreta.

Jordania: UNRWA erakundearen lanbide-heziketako programa eraldatzea

UNRWA agentziaren lanbide-heziketako estrategia modernizatzeko, tokiko lan-merkatuekin lerrokatzeko eta ikasleen enplegarritasuna sustatzeko, **Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta eLankidetz**a - **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak** UNRWA erakundeak Jordanian duen lanbide-heziketako programari laguntzeko lehen faseari ekin diote. Ildo beretik, UNRWA agentziak Jordanian dituen lanbide-heziketako bi zentroak indartu nahi ditu programak lau jarduera-eremutan (ibilgailu elektrikoak, eguzki-energia, erizaintza eta hortzetako teknologia), ekipoa eskuratzuz, prestakuntzako planak aztertuz eta hezitzaileei puntako teknologiei eta metodologiei buruzko ezagutzak eskuratzen lagunduz. 12 hezitzailek parte hartuko dute, gutxi gorabehera 1.044 ikaslek eta lanbide-heziketako bi zentroetako sei kidek.



HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA

Ekintza Euskadin

UNRWA Euskadik Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioarekiko konpromiso osoa dauka. Hori dela eta, herritartasun globalerako hezkuntzaren eta euskal gizartea sentsibilizatzearen arloko jarduerak burutzen ditu.

eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak finantzaturako "Artibista gazteak: klimaren aldeko lana genero-ikuspegiarekin Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideen urratzeetatik abiatuta" proiektuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturako "Gipuzkoako artibista gazteak: klimaren aldeko lana genero-berdintasunarekin Palestinako errefuxiatuen egoeratik abiatuta" proiektuaren esparruan, honako ekintza hauek gauzatu dira:

Palestinako emakume errefuxiatuen ingurumen-eskubideen aldeko artibismoa: ekiteko deia

Prestakuntzako prozesu paregabearen esparruan esku-hartze eraldatzailea egin da Gipuzkoako bost ikastetxetan (Arrasate BHI, Zarautzeko La Salle, BHI Beasain, Zurriola Ikastola eta Donostiako EASO Politeknikoa), klimaren aldeko lana genero-berdintasunaren ikuspegiarekin ardatz. Proposamen pedagogikoa bi oinarrizko fasetan garatu da:

1. Ikasteko eta sentikor bihurtzeko fasea: honetan zehar, ikasleek Palestinako emakume errefuxiatuen egoera sakon ezagutzeko aukera izan dute, eta gizatalde horri eragiten dizkioten desparekotasuneko eta indarkeriako hainbat geruza aztertu dituzte. Gainera, klima-aldaketak komunitate ahulenetan duen eraginaren inguruan hausnartu da, klima-justizia lotuz giza eskubideekin eta genero-berdintasunarekin. Egoera agerian jartzeko, palestinar baten lekukoa jaso da. Bere kontakizun pertsonal eta hunkigarriak aberastu du esperientzia. Lekukoa oinarrizkoa izan da sentikor bihurtzeko eta eskubideen aldeko borroka leuntzeko.



2. Mobilizazio artibistaren fasea: honetan, ikasleek haien burua sormenez eta modu aktiboan adierazi dute Irantzu Lekue artistaren eskutik. Hainbat diziplina artistikoren bidez, ingurumen-eskubideak, genero-berdintasuna eta ingurumenaren babesa bermatzen dituzten ekintza zehatzak eskatzeko taldeko mobilizazioa sustatu egin da.

Prestakuntzako prozesu honetan 209 ikaslek parte hartu dute. Prozesuaren esparruan kontzientzia sortu da eta gazteak ahaldundu dira haien komunitateetan aldaketarako eragile bihurtzeko. Haien aitzindaritzari esker, 451 ikaslek pausu bat aurrera eman dute Palestinako errefuxiatuen ingurumen-eskubideak babesteko, eta sendo mobilizatu dira ikastetxeko zein ikastetxetik kanpoko ekintzetan. Haien konpromisoa ikasgeletatik haratago zabaldu da, eta justiziaren, berdintasunaren eta jasangarritasunaren mezua kalera, sare sozialetara eta bizi diren komunitateetara eraman dute.

Topaketa eraldatzailea: trukerako web-mintegia EASO ikastetxeko ikasleen eta Abeer Butmeh-ren, "Palestinako lurraren lagunak" ingurumeneko GKE palestinarren sarearen (PENGON-FoE Palestina) koordinatzailearen, artean

Trukerako web-mintegi paregabeak EASO Politeknikoaren Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola Heziketa Zikloko 87 ikasle eta irakasle "Palestinako lurraren lagunak" ingurumeneko GKE palestinarren sarearen (PENGON-FoE Palestina) koordinatzailea den Abeer Butmeh-rekin batu ditu. Aurkezpen harrigarrian klima-aldaketak eta ingurumenaren krisialdiak nola larriagotzen dituzten Palestinako errefuxiatuen bizi-baldintzak okupazioaren testuinguruan aztertu zen. Gainera, aurre egin behar dieten erroka eta zaugarritasun zehatzak azpimarratu ziren. PENGON sarearen funtsezko lana ere erakutsi zen. Izan ere, ekintza "ARTibistak" antolatzen ditu palestinarren ingurumen-eskubideak babesteko, artea aurrera egiteko eta agerian jartzeko tresna gisa erabiliz. Esku-hartze honek Palestinan dagoen ingurumenaren aldeko borrokaren eta justizia sozialaren arteko lotura nabarmentzen du.

Ekimen honen bidez, munduko jasangarritasunaren eta justizia sozialaren aldeko konpromisoa duten komunitateen arteko harremanak sendotu nahi izan dira.

"Palestinaren aldeko artibismoa: gizartearen eraldaketarako tresnak baretik abiatuta"

UNRWA Euskadik eskubidez, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Erakunde Foroarekin lankidetzan, foroak bultzatzen duen "Bake Kultura, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak" online ikastaroan parte hartu du. "Artibismoa Palestinaren alde: bakearen bidezko gizarte-eraldaketarako jarraibide praktikoak eta adibideak" izenburua duen moduluan, artibismoa gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzeko helduzkoak zirela, eta bakearen kulturak ikuspegi horren nortasun nagusi gisa duen funtsezko zeregina nabarmentzen du.

Instalazio artibista Donostian, Palestinako Herriarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Eguna dela eta

Irantzu Lekuerekin eta Zurriola Ikastolako batxilergoko eta EASO Politeknikoko Ingurumen Hezkuntza eta

Kontrola moduluko ikasleekin elkarlanean, Palestinako errefuxiatuen errealitatean murgiltzeko gonbita egiten zuen instalazio artistiko bat egin zen zuzenean azaroaren 29an. Ekitaldian, palestinarrei babesa adierazteko mezuak idatzi zituzten bertaratutakoek, eta elkartasuneko adierazpen sendoaren parte aktibo bihurtu ziren.

Ekitaldia aukera paregabea izan zen sormenezko eta konpromiso sozialeko ekintza batean batzeko, non artibismoa errefuxiatuen egoeraz sentikor bihurtzeko eta gazteak motibatuzeko haien inguruan aldaketaren eragile izateko tresna bihurtu zen.



eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak finantzaturako "Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuen ahultasuna murrizteko ahalduntze-estrategiak (IV. fasea)" proiektuaren eraginaren eta lekukotasunaren esparruan, honako jarduera hauek egin dira:

Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuei buruzko hausnarketako eta sorkuntzako tailerrak

Ikasketako, elkartasuneko eta sormeneko bidaia! UPV/EHUK Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetan dituen esperientzia geekin eta Muskizko udalaren kultura-gelarekin elkarlanean, lau tailer txundigarri egin dira Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuen testuinguru humanitarioa arakatzeko.

33 pertsonak ezagutu zuten haien egoera UNRWA Euskadik Susanna Martín eta Cristina Buenorekin elkarlanean ekoiztutako "Ahlam: bizitza batekin amestuz" komikiaren benetako lekukotasunen bidez. Gainera, irakurketa dramatizatuari, testuen taldeko sorkuntzari eta arte dramatikoari esker, sormenak eta ikaskuntzak bizia hartu zuten.

Conferencia/ Hitzaldia
La mujer palestina bajo la ocupación
Emakume palestinarra okupaziopean

Hizlaria / Ponente: Suha Najjar,
Palestinako Errefuxiatua, Refugiada de
Palestina

KOMIKIAREN ERAKUSKETA
EXPOSICION DEL COMIC

AHLAM
SOFAR CON UN VIDEO

25 de octubre, Urriak 25
18:30
Kareaga Goikoa Kalea, 54
Marienea, Basauri

Inscripciones/ Izen Ematea
Tlf. 94 612 41 02
marienea@basauri.eus

Erresilientziako ahotsak: hitzaldiak eta erakusketak emakumeen etxeetan Suha Abughazala-ren lekukotasunarekin

Sentikor bihurtzeko programa honek esperientzia paregabea eskaini zuen bi zatitan: "Ahlam: biritza batekin amestuz" komikiaren erakusketa bat, Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuen istorioak kontatzen dituen, eta Suha Abughazala Gazako errefuxiatuarekin hitzaldi-solasaldia, okupaziopean emakume palestinarrek aurre egin behar dieten egoera zailen inguruko lekukotasuna partekatu zuena.

Basauriko (Marienea) eta Arrigorriagako (Lamianea) emakumeen etxeekin izandako elkartasun baliotsuari esker, 213 lagunek parte hartu zuten programan.

UNRWA Euskadik Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketari esker egin ahal izan du proiektua. "Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideak sustatzeko errezetak tokiko ikuspegi global batetik" proiektuaren bigarren urtean, honako ekintza hauek gauzatu dira:

Ahantzuraren aurkako errezetak: bidaia gastronomikoa Palestinako emakume errefuxiatuekin

UNRWA Euskadik, Basque Culinary Center zentroarekin batera, "Ahantzuraren aurkako errezetak: Palestinako emakume errefuxiatuekin Libanon sukaldatzen" errezeta-liburua aurkeztu zuen Bilboko BBK Kunaren Ganbara aretoan. Ekitaldi paregabea izan zen, África Baeta kazetariak moderatuta, Palestinako errefuxiatuen egoera zaila jorratu zuena.

Bárbara Ruiz Balzola UNRWA Euskadiko ordezkariak Gazako eta Zisjordaniako egoeraren inguruko ikuspegi eguneratua eskaini zuen; Macarena Arrieta Manterola hezkuntzako koordinatzaileak, berriz, Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuen egoera partekatu zuen. Diseinatzaile gastronomikoa eta Basque Culinary Center zentroko irakaslea den Luisa López Telleriak Burj Barajneh eta Shatila kanpamentuetan izandako esperientzia kontatu zuen. Emakume horien sukaldaritza azaldu zuen eta haien errezetak zoritxarraren aurrean erresilientzia izateko modu bat direla esan zuen.

Eguna amaitzeko, liburuaren errezeta batzuk dastatu ziren, hala nola Ka'ak Al-Quds ogia, gazta freskoa eta zumakea, eta granadazko limonada freskagarri bat, Palestinako kostaldeko edari tradizionala, hain zuzen ere. Ekitaldiak, gorputza ez ezik, arima ere elikatu zuen, gastronomia biziraupenaren aldeko borrokarekin lotu baitzuen.

**PRESENTACIÓN
RECETARIO**

Habrà degustación

A cargo de:
Luisa López Tellería
Profesora del Basque Culinary Center
Macarena Arrieta Manterola
Coordinadora de Educación de UNRWA Euskadi

Moderado por:
África Baeta
Periodista

27 de enero. 12:00
BBK Kuna. Sala Ganbara
Urazurrutia 3, Bilbao

Inscripciones 

**RECETAS
CONTRA EL OLVIDO**
Cocinando con mujeres refugiadas
de Palestina en Libano

Palestinako kultura eta sukaldaritza ezagutzeko tailerrak

Palestinako sukaldaritzaren ohituren aberastasuna partekatzen jarraitzeko asmoz, 105 pertsonen hiru tailer gastronomiko irekietan parte hartu zuten Markina-Xemeinen, Sopelan eta Leioan (azken hau Munduko Arrozak Jaialdiaren barruan), baita ostalaritzako ikasleei bereziki zuzendutako bi tailerretan ere, Peñascal Kooperatibaren eskutik.

Mohammed Farajallah sukaldari amateur palestinarrarekin batera, bertaratu zirenek fatoush, falafel, hummus, maqloba eta kanafeh platerak Palestinako emakume errefuxiatuek Libanoko kanpamentuetan egiten dituzten bezala prestatzeko sekretuak ezagutu zituzten.

Sukaldaritzatik haratago, plater bakoitzaren esanahi kulturean sakontzeko aukera eskaini zuten tailerrek, baita gai erabakigarriari buruz eztabaidatzeko aukera ere, hala nola Palestinako errefuxiatuen eskubideak, elikaduraren segurtasuna eta jasangarritasun ekologikoa.



INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE BERRI ETA EKINTZAK.

Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen agenziak (UNRWA) Giza Eskubideen 2024ko René Cassin Saria jaso du

Eusko Jaurlaritzak 2024ko René Cassin Saria eman zion Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen agenziari (UNRWA), "nazioarteko zuzenbide humanitarioa defendatzearen aldeko borroka nekaezinagatik". Sari honekin, Palestinako milioika errefuxiatuen giza eskubideak babesteko eta sustatzeko funtsezko zeregina betetzeko hartu duen konpromisoa aitortu eta balioa azpimarratu nahi du epaimahaiak.

2003an giza eskubideen aldeko jarduera nabarmenak publikoki aitortzeko sortu zen saria, eta aurrean UNRWA erakundeak jasotzea erabaki du epaimahaiak, UNRWA Euskadi batzorde autonomikoaren bidez. Deialdira aurkeztutako hautagaitzak aztertu ostean, epaimahaiak erakunde hori izatea erabaki du, "milioika errefuxiatu palestinarren alde egiten duen lanagatik, baita funtsezko zerbitzuak (hezkuntza, osasun-arreta eta laguntza humanitarioa) bermatzeko egiten duen lanagatik ere".

Epaimahaiaren iritziz, "eskolak, ospitaleak eta babeslekuak hornitzeko egin duen lanari esker, milioika errefuxiatu palestinarrak haien duintasuna gorde dute, garapenerako aukerak izan dituzte eta haien oinarriko eskubideak defendatu dituzte, batez ere hezkuntzarako eta osasunerako eskubidea". Era berean, krisialdi eta hondamendietan larrialdiko laguntza emateko izan duten gaitasuna "erabakigarria izan da bizitzak salbatzeko eta gehien behar dutenen sufrimendua arintzeko". Horrez gain, "errefuxiatu palestinarren eskubide zibilak eta giza duintasuna babesteko lan nekaezina egin du, haien ongizatea sustatuz".



UNRWA agentziak 2024ko Ignacio Ellacuría Saria jaso du Palestinako errefuxiatuen bakearen eta duintasunaren alde egindako lanagatik

Palestinako Herriarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Egunaren bezperan, Eusko Jaurlaritzak, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren bitartez, iragarri zuen garapenerako lankidetzako 2024ko Ignacio Ellacuría Saria emango ziola UNRWA erakundeari, Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen agentziari.

Epaimahaiak esker ona eman nahi izan zion agentziari “gatazka etengabeen testuinguruan Palestinako herriarekin 75 urtez izan duen bizi-konpromiso, -ibilbide eta -arduragatik”. Gainera, “palestinarrekin justiziaren eta giza eskubideen alde egiten duen lan zuzenaren alderik bihozberena” nabarmentzen du.

Ignacio Ellacuría Saria jasotzea merezi duela ondorioztatu du epaimahaiak, “desagertzeko benetako arriskuagatik; izan ere, palestinarekiko babeserako eskubidea eta haien lur eta etxeetara itzultzeko eskubidea kentzea ekarriko luke”, UNRWA agentziak pairatzen duen kriminalizazioa aipatuz.



Bilera Lehendakariarekin

Urrian, Imanol Pradales Lehendakaria UNRWA agentziako ordezkari laguntzailearekin, Natalie Boucly-rekin, bildu zen. Lehendakaritzako topaketan izan ziren, baita ere, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren zuzendaria, Paul Ortega, eta UNRWA Euskadiko arduraduna, Bárbara Ruiz Balzola.

UNRWA erakundeak eskerrak eman zizkion Eusko Jaurlaritzari Palestinako errefuxiatuen giza garapeneraren aldeko konpromiso baliotsuagatik.



Eusko Jaurlaritzako hezkuntzako sailburuak Euskadik Palestinako errefuxiatuen komunitatearekin duen konpromisoa erakutsi du

Begoña Pedrosa hezkuntzako sailburuak Natalie Boucly UNRWA agentziaren ordezkari laguntzailea hartu zuen. Eusko Jaurlaritzak UNRWA erakundearekiko konpromisoari eutsi dio. Zehazki, Hezkuntza Sailak eta eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak errefuxiatuentzako lanbide-heziketako programa bat jarri dute abian. Ekimena Jordaniako bi ikastetxetara zuzendu da batez ere.

Bisitaldian, Raquel Martí Lezana, UNRWA España erakundeko zuzendari exekutiboa, Bárbara Ruiz Balzola, UNRWA Euskadiko ordezkaria, eta Jon Labaka eta Nicolas Sagarzazu sailburuordeak izan ziren. UNRWA agentziako ordezkari laguntzaileak bere hezkuntzaren arloko proiektuaren berri eman zion Pedrosa sailburuari.

Eusko Legebiltzarreko presidentea UNRWA agentziako ordezkari batekin bildu da

Eusko Legebiltzarreko presidentea, Bakartxo Tejeria, Unai Sacona UNRWA agentziaren hezkuntzako zuzendari laguntzaileak, Raquel Martí Lezana UNRWA España erakundearen zuzendari exekutiboak eta Bárbara Ruiz Balzola UNRWA Euskadiko ordezkariak osatutako UNRWA agentziako ordezkari batekin bildu zen.

Topaketan, agentziako ordezkariak UNRWA erakundeak egiten duen lana azaldu zioten, eta Palestinako errefuxiatuen egungo egoera humanitario larriaren berri eman zioten. Aipatu beharra dago UNRWA Eusko Legebiltzarrekin elkarlanean aritzen dela Palestina eta Ekialde Hurbila Babesteko Taldeartekoaren bidez.



Lankidetzeta Kontseiluetan Parte-hartzea

2024an zehar, Donostiako Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Kontseiluan eta Bilboko Garapenerako Lankidetzako Udal Kontseiluan parte hartzen jarraitu zen.

Aguraingo Elkartasunaren Astea

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak antolatutako Aguraingo Elkartasunaren Astean parte hartu zuen UNRWA Euskadik, eta bertan herri okupatuekiko, bereziki Palestinarekiko, euskal elkartasunaren enginkizuna jorratu zen.

“Begiek min eman arte” erakusketa

Mertxe Amondarain artistaren laguntzari esker, UNRWA Euskadik “Begiek min eman arte” erakusketa Agurain, Erandio eta Bilbora eramán du. 30 marrazki digital harrigarriak osatzen dute erakusketa, non palestinarrek azken urtean Gazan bizi izan duten egoera latza islatzen den.

Pieza bakoitzak, sentsibilitatez eta konpromisoz beteta, hausnartzera gonbidatzen du, eta herritarren sufrimendua humanizatzeko eta ikusarazteko beharra erakusten du.



ZURRUMURRUVEN AURKAKO SOLASALDIA
CONVERSATORIO ANTRUMOR
EKAINAK 20 JUNIO, 19:00 - 20:30
Gazatik haratago: inflexio-puntu bat Europarentzat?
Más allá de Gaza: ¿un punto de inflexión para Europa?
Sertutxena
(Eloisa Artaza Kolea, 1, Gortiz)

Teresa Aranguren
Kazetari honen ibilbide profesionala mundu arabiarreko eta gertakion kazetari eta erreportaje nazioarteko informazioarekin lotuta egon da. Periodista suya trayectoria profesional ha estado ligada a la información internacional del mundo árabe y zonas en conflicto.

Imanol Zubero Beaskoetxea
Sociologiko irakasle titulatu UPV/EHU. Profesor Titular de Sociología en la UPV/EHU.

Bárbara Ruiz Balzola
UNRWA Euskadiko ordezkaria. Delegada UNRWA Euskadi.

Sareara librean aukeratu bete arte
Acceso libre hasta completar aforo

Bizkaia Gortiz

ACTIVIDAD SINCRÓNICA CURSO ONLINE
CULTURA DE PAZ, CONVIVENCIA Y DDHH
ESKUBIDEZ TE INVITA A

Conversaciones sobre Palestina
PARTICIPAN:

Teresa Aranguren
Kazetari
REPORTAJERA ESPECIALIZADA EN EL ORIENTE MEDIO

Azken Iratxe
Irakasle irakaslea
COORDINADORA DE EHU EN EL BILBAO

Bárbara Ruiz Balzola
Delegada de UNRWA EUSKADI

¿Cuándo? 28 de junio de 2024
¿Dónde? Online via Zoom
¿A qué hora? 18:00 - 21:00 p.m.

FOR FAVOR CONFIRMA TU ASISTENCIA ENVIANDO UN CORREO A: info@eskubidez.org

eskubidez ELISU JARRAITZA EGI TERRO VASCO


PALESTINA: GIZATASUN KRISIA - CRISIS DE HUMANIDAD

Hizlariak / Ponentes:
Mohamed Farajallah:
Ekintzaile Palestinarra
Bárbara Ruiz Balzola:
UNRWA Euskadi

Apirilaren 15 abril. 18:00
Kulturate. Jokin Zaitegi
Arrasate

30 hitzaldi baino gehiago Palestinako lurralde okupatuaren egoera humanitarioa agerian uzteko

Urtean zehar, UNRWA Euskadik 30 hitzaldi baino gehiagotan parte hartu du, eta horietan Gazako egoera humanitario larriari eta UNRWA agentziak egiten duen funtsezko lanari ekin zaie. UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea edo Mondragon Unibertsitatea bezalako unibertsitateek, UNRWA Euskadi parte den sareek (Zas edo Eskubidez, besteak beste), herritarren elkarteek eta/edo plataformek sustatutako guneak oinarritzeko izan dira Palestinako errefuxiatuen egoeraren ulermena areagotzeko eta herritarren babesa sustatzeko.



**Gure lana aurrera eramaten laguntzen diguzuenoi, guztioi,
ESKERRIK ASKO, gure taldeko kide zaretela jakiteak
lasaitu egiten gaitu.**

**Talde konprometitu, ausart eta Palestinako errefuxiatuen
eskubideak defendatzen jarraitzeko asmoa duen
talde baten parte zarete. Bihotz-bihotzez, ESKERRIK ASKO.
Aurrera jarrai dezagun, 6 milioi arrazoi baino gehiago ditugu!**

- UNRWA Euskadi taldeak.



Palestinako errefuxiatuen biztanleekin lan egiten dugu
etorkizun duin baten alde.

erkidego batzordea



unrwa
euskadi

Arabako Ordezkaritza

Espainia Plaza 13,
2.solairua
01001 Vitoria- Gasteiz
Telf. 696804616
Email: rargote@unrwa.es

Bizkaiko Ordezkaritza

Ibañez de Bilbao Kalea 13,
ezkerreko solairuartea
48009 Bilbo
Tlf. 944 346 731
Email: euskadi@unrwa.es

Gipuzkoako Ordezkaritza

Okendo Kalea 13, 3. solairua
20004 Donostia - San
Sebastián
Tlf. 691 564 056
Email: gipuzkoa@unrwa.es